

DIRU-ITURRIAK

Hasiera, gure enpresa sozietate mugatu bat izango da, hau da, kide bakoitzak kapital kantitate berbera jarriko du (guztira 3.000€) eta eragozpen legal bat gertatzen bada, bakoitzak inbertitutako dirua arriskatuko du. Horregatik, lehenengo izango dugun irabazi iturriak, gure inbertsioa izango da. Hau da, bakoitzak diru kantitate zehatz bat jarriko du proiektu honen hasieran.

01


DIRU SARREREN ITURRI
NAGUSIAK

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzari 5.000€-ko diru laguntza eskatuko diogu eta horrekin gure aplikazioaren “demo” bat egin dezakegu. Diru laguntza hori enpresa berritzaile bat egiteagatik emandako dirua izango da. Ehunekoak horrela geratuko ziren: %65a Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza eta %35a gure aurrezkiak.

02

EHUNEKOAK ETA
HASIERAKO INBERTSIOAK

Ondoren ekitaldi batzuk daude non zure ideia aurkeztu dezakezu eta beste enpresen edo pertsonen inbertsioak jaso ditzakezun. B-Venture izeneko ekitaldi bat dago, adibidez, Bilbon egiten dela urtero. Bertan zure enpresa sorkuntzarako diru laguntzak jaso ditzakezu eta horregatik han aurkeztuko dugu gure ‘demo-a’ eta hortik diru gehiago lortuko genuke aplikazioan jarraitzeko eta azkenengo produktua sortzeko.



Gainera, aplikazioan zein web orrian publizitatea egin genezake enpresei, horrela haiek beraien marka ezaguna bihurtzen dute eta guk beste diru sarrera bat lortzen dugu. Honek %20 izatea edo gehiago espero dugu. Enpresa horiek gure produktuarekin zerikusia izango dute, adibidez, lapikoak eta zartaginak saltzen dutenak, haien artean Inoxibar edo etxeko tresnen garbitasuna zaintzen duten enpresak, Vitroclen edo Dixan barne.

Gure aplikazioa dohain izango da behin gure zerbitzuak kontratatzean, hau da, prezioan barne doa eta zure izenarekin eta pasahitz batekin sartu zaitezke bakarrik.

Hasi ahala, bezeroen dirua lortuko dugu gure aplikazioan aktualizazio berriak egiteko eta orokorrean produktua hobetzeko, horregatik ehunekoak aldatuko ziren eta guk ez genuke hainbeste diru jarri behar. Izan ere, eskatutako diru laguntzaren dirua berriro bueltatu beharko genuke, beraz, horretarako dirua ere aurreztu behar dugu.

